



# aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## PITZADURETATIK LORATZEKO PREMIA FLORECIENDO DESDE LAS GRIETAS

25 URTEKO ODISEA ADMINISTRAZIOAREN HESTEETAN  
UNA ODISEA DE 25 AÑOS EN LA VORÁGINE DE LA ADMINISTRACIÓN



**ALBA CABRERA**  
**BEÑAT LIZASO**

Iragan mendearen hasieran, 1905. urtean, hain zuzen, Urnietako Udaletxean piztutako sute batek herriko haurrak eskola gabe utzi zituen. Oblatuen Komentuan eta Idiazabal kaleko etxe batean jarraitu behar izan zituzten ikasketak hurrek, harik eta Pedro Viterik udalari eskola berria eraikitzeko 20.000 pezeta eman zizkion arte.

*A principios del siglo pasado, en el año 1905, un incendio en el Ayuntamiento de Urnieta dejó a los niños del pueblo sin colegio. Estos tuvieron que continuar sus estudios en el Convento de los Oblatos y en una casa de la calle Idiazabal, hasta que Pedro Viteri entregó al ayuntamiento 20.000 pesetas para construir la nueva escuela.*



1907ko azaroaren 17an inauguratu zen eskola berri hura, solairu bakarrekoa, gaur egun, Azkorte gisa ezagutzen dena. Beranduago, 1934an eman zioten bide bigarren solairuari, herriko haurren kopuruaren hazkundea zela medio. Orduetik, hamarnaka belaunaldik zapaldu dituzte lurreko egur karraskariak, baita egun haizetsuetan leihoen ahultasuna entzun ere.

Manu Mariasek, Egapeko DBHko zuzendari ohiak, gogoan du lehen egunean, eraikin zaharkitu hura zapaldu zuenekoak: “Eskola ertain-handi xamar batetik nentorren, ikastetxe arrunt batetik. Egape Ikastolan lur hartu nuenean, 2000. urtean,



ikusi nuen lehen gauza eraikinaren egoera kaskarra izan zen”. Hala ere, berehala sumatu zuen bertako lan-taldearen indarra: “Irakasle-talde oso ekimentsuarekin egin nuen topo; ondo kohesionaturik eta ilusioz beterik. Gehienek denbora zeramaten eskolan, eta gauza handiak egiteko gogoia zuten”. Talde horretan bertan zeuden Joxe Mari Agirre, Mariasen aurreko zuzendaria eta Amaia Amutxastegi, egungo zuzendaria.

Egape Ikastola 1993an publikatu zen eta 1996-1997 ikasturtean batu zen Azkorte Eskola Publikoarekin. Biak ala biak ziren Lehen Hezkuntzakoak; Ondorioz, gabeziak gabezia, Azkorteko eraikinak Bigarren Hezkuntzako ikasketak emateko bideratzea erabaki zuen eskola-komunitateak. “Ikastola publikatu zenean, Urnietan Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat lortzea izan zen borroka.

**“IRAKASLEEN TALDE EKIMENTSUAREN LANAK EKARRI DU GAUR EGUN IKASTETXEAK DAUKAN PROIEKTU PEDAGOGIKO SENDOA”**

MANU MARIAS, ZUZENDARI OHIA

*El 17 de noviembre de 1907 se inauguró la nueva escuela, de una sola planta, hoy conocida como Azkorte. Más tarde, en 1934, debido al aumento del número de niños en el pueblo, se levantó la segunda planta. Desde entonces, decenas de generaciones han sido testigos de la decadencia del edificio.*

*Manu Marías, ex director de Egape, recuerda aquella primera vez de cuando pisó aquel envejecido edificio: “Venía de una escuela mediana-grande, de un colegio normal. Cuando aterricé en la Ikastola Egape, en el año 2000, lo primero que vi fue el mal estado del edificio”. Sin embargo, enseguida percibió la fuerza del profesorado: “Me encontré con un equipo de profesores muy proactivo, bien cohesionado e ilusionado. La mayoría llevaba tiempo en la escuela y tenían ganas de hacer grandes cosas”. En ese grupo se encontraban Joxe Mari Agirre, el director anterior a Marías, y Amaia Amutxastegi, actual directora.*

*Egape Ikastola se publicó en 1993 y se unió a la Escuela Pública Azkorte en el curso 1996-1997. Ambos eran de Educación Primaria, por lo que, a pesar de las carencias, la comunidad escolar decidió destinar el edificio de Azkorte a impartir los estudios de Secundaria. “Cuando se publicó la ikastola, la lucha fue conseguir un colegio de Secundaria en Urnieta. Por lo tanto, defendimos la posibilidad de que la Secundaria se hiciera allí, a pesar de ser conscientes de las carencias del edificio”, ha aclarado Agirre. “Cuando nos unimos Egape y Azkorte y vimos el edificio, la verdad es que no nos planteamos nada, era lo que tocaba y punto” añade Amaia Amutxastegi.*

*Sin embargo, la situación del edificio obligó de inmediato a la comunidad escolar de Urnieta a solicitar un nuevo edificio, por lo que en el curso 1998-1999 el Ayuntamiento de Urnieta consideró adecuado el terreno situado junto al edificio de Educación Primaria de la calle Lizardi. En consecuencia, la alcaldía de la época, se puso en contacto con los dueños de las tierras, pero finalmente no les hizo ninguna oferta por “desinterés”, según la comunidad escolar.*

*“Cuando llegué a Urnieta, mi primera reunión fuera de la escuela fue sobre el nuevo edificio, en la delegación del Departamento de Educación de Donostia”, ha recordado Manu Marías. Sin embargo, los cambios en la alcaldía hicieron que el asunto perdiera importancia.*

*Por ello, posteriormente, a iniciativa del Ayuntamiento de Urnieta, se trasladó al Departamento de Educación la*

**“EL TRABAJO DEL PROFESORADO, PROACTIVO Y POTENTE, HA PROPICIADO EL SÓLIDO PROYECTO PEDAGÓGICO QUE HOY TIENE EL CENTRO”**

MANU MARIÁS, EX DIRECTOR





propuesta de un terreno cercano a Berrasoeta. “A nosotros no nos convencía mucho”, ha reconocido Marías, “pero como había necesidad, adelante”. Dicho esto, el proyecto siguió adelante y la Delegación de Educación remitió a Urnieta un técnico superior para realizar una valoración de los terrenos. “Fui con él a ver la zona y enseguida me dijo que no era factible, que no se iba a permitir en absoluto”, ha añadido. En este sentido, Joxe Mari Agirre dice que no había sitio allí, que era una chapuza: “Cuando el ayuntamiento proponía esos terrenos, yo creo que sabía de su inviabilidad”.

Ante las escasas posibilidades, la Delegación de Educación planteó la posibilidad de rehabilitar el actual centro, demoliendo los edificios y construyendo otros nuevos. Sin embargo, el Ayuntamiento no lo aprobó, alegando problemas legales.

En total, el nuevo edificio ha estado sobre la mesa durante seis legislaturas. En la actualidad, Amaia Amutxastegi es la directora de la Ikastola Egape: la tercera, desde que comenzó el tema del nuevo edificio, que ha durado más de lo previsto. Tras recoger el testigo de Marías, ella es la encargada de las relaciones con el Ayuntamiento desde hace tres años. Pero en palabras de Amutxastegi, necesitados de un impulso adicional, se pusieron en contacto con la Asociación de Padres y Madres de la escuela: “Acudimos a los padres y madres para buscar su implicación. Porque ellas son las urnietarras, y nos parece que las familias tienen más fuerza que el profesorado y la dirección en la escuela pública”.

**“DEFENDIMOS LA POSIBILIDAD DE QUE LA SECUNDARIA SE HICIERA ALLÍ, A PESAR DE SER CONSCIENTES DE LAS CARENCIAS DEL EDIFICIO”**

**JOXE MARI AGIRRE, EX DIRECTOR Y PROFESOR RETIRADO**



Beraz, Bigarren Hezkuntza bertan egiteko balizkotasuna defendatu genuen, nahiz eta eraikinaren gabeziez jabetu”, argitu du Agirrek. Amaia Amutxastegik ere bide beretik jo du: “Egape eta Azkorte batu ginenean eta eraikina ikusi genuenean, ez genuen ezer planteatu egia esan, hori zen gure lekua eta punto”.

Hala ere, edifizioaren egoerak berehala behartu zuen Urnietako eskola-komunitatea eraikin berriaren eskaera egitera; hortaz, 1998-1999 ikasturtean, Lizardi kaleko Lehen Hezkuntzako eraikinaren ondoan dagoen lur-esparrua egoki ikusi zuen Urnietako Udalak. Ondorioz, ugazabekin jarri zen harremanetan, garaiko alkatetza; baina, azkenean, ez zien diru-eskaintzarik egin, eskola-komunitatearen esanetan, “interes eza” zela eta.

“Urnietara iritsi nintzenean, eraikin berriari buruzkoa izan zen eskolatik kanpo egin nuen lehen bilera, Donostiako Hezkuntza Saileko ordezkarietan”, ekarri du gogora Manu Mariasek. Dena den, alkatetzan emandako aldaketek aferak garrantzia galtzea ekarri zuen.

Horiek horrela, beranduago, Urnietako Udalaren ekimenez, Berrasoeta alboko lur-eremuaren proposamena luzatu zitzaion Hezkuntza Sailari. “Gu ez gintuen asko konbentzitzen”, aitortu du Mariasek, “baina premia zegoenez, aurrera”. Esanak esan, proiektuak aurrera egin zuen eta Hezkuntza Ordezkaritzak goi-teknikaria bidali zuen Urnietara, lurren gaineko balorazioa

**“BIGARREN HEZKUNTZA BERTAN EGITEKO BALIZKOTASUNA DEFENDATU GENUEN, NAHIZ ETA ERAIKINAREN GABEZIEZ JABETU”**

**JOXE MARI AGIRRE, ZUZENDARI ETA IRAKASLE OIHA**

egiteko. “Harekin batera joan nintzen eremua ikustera, eta hark berehala esan zidan ez zela egingarria, alegia, ez zela onartuko inondik inora ere”, gaineratu du zuzendari ohiak. Horren harira, Joxe Mari Agirrek dio ez zegoela lekurik bertan, lardaskeria hutsa zela: “Udaletxeak lur horiek proposatzean, nire ustez, bazekien horren bideragarritasun eza”.

Aukera murrizten aurrean, Hezkuntza Delegaritzako arduradunak gaur egungo zentroa zaharberritzeko aukera mahaigaineratu zuen, orubeko eraikinak bota eta berriak egiteko. Aitzitik, Udalak ez zuen onetsi, arazo legalak medio.

Orotara, sei legegintzalditan egon da eraikinaren beharra mahai gainean. Egun, Amaia Amutxastegi da Egape Ikastolako zuzendaria, aurreikusitako baino luzeago jo duen auzian, hirugarrena. Mariasen lekukoa jasota, berak ekin zion orain hiru urte Udalarekin hitzarteari. Baina Amutxastegiren hitzetan, bultzada gehigarri baten premia, eskolako Guraso Elkartearekin ipini ziren harremanetan: “Gurasoengana jo genuen beren inplikazioa bilatzeko asmoz. Izan ere, beraiek dira urnietarrak, eta iruditzen zaigu irakasleak zein zuzendaritzak baino, familiek berek dutela indar handiagoa eskola publikoan”.

## ‘GURE SEME-ALABEK KONTENEDOREETAN IKASTEN DUTE’

Hainbat adinetako ikasleen familiak biltzen ditu Azkorte Guraso Elkarteak; apurka-apurka, beren seme-alabak Bigarren Hezkuntza ekitearekin batera, batu dira taldera. Emakumeak dira, oro har, elkartearen motorra: ama izateaz gain, eskola-komunitateko langileak dira horietako asko — jangelako langileak, irakasleak...—, baita Egape Ikastolako ikasle ohiak ere.

“Zenbat eta bilera gehiago egin, orduan eta ardura handiagoa eskatzen dizu egoerak”, dio Izaskun Bilbao elkartekideak, “eta hortan gabiltza, etenik gabeko borrokan”. Hala, gurasoak adierazi du kontua asko aldatu dela, lehen bileratik gaurdaino, “bai gure iritzitik, bai beraiek saldu nahi ziguten horretatik. Entzule huts izatetik, egur handia ematera igaro gara”. Ildo beretik jo du Cristina Pereira gurasoak ere: “Presioa egiten ari gara, nik uste, horretan ere zenbat eta gehiago izan, hobe”.

Orain lau urte sartu zen Olatz Petrina elkartean: “Gutxiegitasun fisikoa duen pertsona batek ezin du Urnietan eskola publikoan ikasi, hots, herritik alde egin behar du, zergatik?”. Harekin bat dator Bilbao ere; eraikinak azpiegitura eskasa izatea ez ezik, irisgarritasun-arazoak ere badituela gehitu du elkartekideak, hau da, haren iritziz, eskolaren antolaketa arkitektonikoak ez die behar guztiei erantzuna ematen: “Oraingoz ez da ezer gertatu, baina gertatuz gero, inork ez du horren erantzule izan nahi. Guk esan diogu Udalari bere gain hartzeko ardura, bere burua Azkorten gerta litezkeen ezbeharren erantzuleztat jotzeko, baina ez du nahi”. Horren harira, hitza hartu du Mari Carmen Martinek: “Gure seme-alabek kontenedoreetan ikasten dute, barrakoietan”.

## ‘NUESTROS HIJOS E HIJAS ESTUDIAN EN CONTENEDORES’

La Asociación de Padres y Madres de Azkorte reúne a familias de alumnos y alumnas de diferentes edades, que poco a poco, con el inicio de la Educación Secundaria, se han ido incorporando al grupo. Las mujeres son, en general, el motor de la asociación: además de ser madres, muchas de ellas son trabajadoras de la comunidad escolar (personal de comedor, profesorado...), así como ex alumnas de la Ikastola Egape.

“Cuanto más reuniones hagas, más responsabilidad te exige la situación”, dice Izaskun Bilbao, “y ahí estamos, en una lucha constante”. Así, la madre comenta que la cuestión ha cambiado mucho desde la primera reunión hasta la actualidad, “tanto desde nuestra opinión como desde lo que ellos querían vender. Hemos pasado de ser meras oyentes a dar mucha leña”. En la misma línea, Cristina Pereira dice: “Yo creo que estamos presionando, cuanto más seamos, mejor”.

Olatz Petrina entró en la asociación hace cuatro años: “Una persona con insuficiencia física no puede estudiar en la escuela pública de Urnieta, es decir, tiene que irse del pueblo, ¿Por qué?”. Bilbao coincide con ella en que el edificio no sólo tiene una infraestructura deficiente, sino que también tiene problemas de accesibilidad, es decir, considera que

**“NO LE DESEO A NADIE LO QUE NO QUIERO PARA MI HIJA. ES IMPOSIBLE TENER QUE ESTUDIAR EN ESTAS CONDICIONES”**

ASOCIACIÓN DE MADRES Y PADRES







la organización arquitectónica de la escuela no responde a todas las necesidades: “De momento no ha pasado nada, pero si ocurre, nadie quiere ser responsable de ello. Nosotras le hemos dicho al Ayuntamiento que se responsabilice de los accidentes que puedan ocurrir en Azkorte, pero no quieren”. En este sentido, Mari Carmen Martín ha tomado la palabra: “Nuestros hijos e hijas estudian en contenedores, en barracones”.

En las primeras reuniones, Nerea Albizu veía el tema con optimismo, pero le ha resultado difícil mantener esa actitud: “Al principio salíamos encantados de las reuniones, parecía que todo iba rápido; inocentes. En fin, las acciones están ahí. ¿Cuántos años han pasado? No hemos avanzado. Siempre que salgo de las reuniones siento que seguimos en la misma situación”. Izaskun Bilbao añade: “No nos hemos enterado de las cosas porque nos lo ha dicho quien debería habérselo dicho, sino porque nosotras y nosotros hemos preguntado a diferentes personas”.

En la actualidad se reúnen una vez al mes en el Ayuntamiento. En un principio sólo se reunían con miembros del Partido Nacionalista Vasco. Sin embargo, en la actualidad se reúnen todos los partidos que conforman el Ayuntamiento, “lo que también ha hecho daño al Ayuntamiento”, ha reconocido Albizu, “porque nosotras queremos transparencia, es decir, que todos estén al corriente para que no haya malentendidos”.

Mari Carmen Martín explica que trabajan intensamente por “los jóvenes del pueblo” y añade: “No le deseo a nadie lo que no quiero para mi hija. Es imposible tener que estudiar en estas condiciones”. Por otro lado, Albizu ha calificado de grave la situación, ya que considera que se trata de ir en contra de la educación pública: “Estás vulnerando un derecho, el derecho a la educación pública. Además, se aprovechan del tiempo, de la paciencia. Y así casi un cuarto de siglo”. Para Martín es necesario garantizar la educación pública en Urnieta: “Es un derecho para nosotros y un deber para ellos”.

Lehenengo bileretan, optimismoz erreparatzen zion Nerea Albizuk gaiari; ordea, zaila egin zaio jarrera horri denbora luzez eustea: “Hasiera batean, bileretatik poz-pozik ateratzen ginen, bazirudien guztia azkar zijoala; inuzenteak. Finean, ekintzak hor daude. Zenbat urte igaro dira? Ez dugu aurrera egin. Bileretatik ateratzen naizen guztietan egoera berean jarraitzen dugula sentitzen dut”. Gainera, taldea jakinaren gainean egoteko oztopoak nabarmendu ditu Bilbaok: “Ez dugu gauzen berri izan esan behar zigunak esan digulako, geuk hainbat jenderi galdetu diogulako baizik”.

Horiek horrela, egun, hilean behin bildu ohi dira Udaletxean. Hasiera batean Eusko Alderdi Jeltzaleko kideekin batzen ziren soilik. Alabaina, egun, Udala osatzen duten alderdi guztiak biltzen dira, “eta horrek ere min egin dio Udalari”, aitortu du Albizuk, “guk gardentasuna nahi dugulako, hau da, guztiak egotea jakinaren gainean, gaizki-ulertuak egon ez daitezen”.

“Herriko gazteengatik” lanean buru-belarri dihardutela azaldu du Mari Carmen Martinek, “nire alabarentzat nahi ez dudana, ez diot beste inori opa. Ezinezkoa da horrelako baldintzetan ikasi behar izatea”. Bestalde, larrizat jo du egoera Albizuk, hezkuntza publikoaren aurka joatea dela deritzo: “Eskubide bat urratzen ari zara, hezkuntza publikorako eskubidea. Gainera, denboraz baliatzen dira, pazientziak. Eta horrela ia mende laurden. Aski da”. Beharrezkoa da Martin gurasoarentzat Urnietan hezkuntza publikoa bermatzea herritarrei: “Eskubidea da guretzat eta betebeharra beraientzat”.

**“NIRE ALABARENTZAT NAHI EZ DUDANA, EZ DIOT BESTE INORI OPA. EZINEZKOA DA HORRELAKO BALDINTZETAN IKASI BEHAR IZATEA”**

**GURASO ELKARTEA**



## PLAN URBANISTIKOAK, TXOSTENAK ETA BUROKRAZIA

Azkorteko eraikina azken 20 urteotan bisitatu duen edozeinek gauza bera pentsatzen du paretetako arrakalak ikustean. Eraikinaren egoera “oso justua” dela azaldu du Mikel Pagolak, Urnietako alkate ohiak, eta hori ez dioela soilik berak: “Hezkuntza Departamentuko arduradunek ere ikusten dute”, gehitu du.

Gauzak horrela, zaila zaio eskolari ulertzen nola luza litekeen horrenbeste eraikin berria egiteko prozesua, hezkuntza-komunitateak identifikatutako behar bat ez ezik, arduradun politikoek ere ikusitako gabeziak dituen eraikin bat izaki.

Zatika erortzen ari da herriko hezkuntza publikoaren arnagunea, Bigarren Hezkuntzako eraikin zaharra. Bien bitartean, Plan Urbanistikoen eta Ingurumen-Txostenen arteko zurrumbilo batean galdu da eraikin berria.

Bigarren Hezkuntzako eraikina Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barnean eraikitzen behartu du Urnietako Udala bere jabetzako lurrik ez izateak. “Plan Orokorra behin-behinean 2007an onartu zen, eta zazpi urte geroago etorri zen behin betiko onespina, hain zuzen ere, 2014an. Ez zen iritsi, ostera, 2020ra arte eskolako eraikin berriari dagokion eremuko Plan Partzialaren behin betiko oniritzia”, azaldu du Jorge Segurado alkateak.

**“GURE AURREIKUSPENA,  
SEI HILABETEREN BURUAN,  
LURREN ESLEIPENA HEZKUNTZA  
DEPARTAMENTUARI EGITEA DA”**

**JORGE SEGURADO, ALKATEA**

Plan horiek guztiak onartuta, orain, Udalak orubearen okupazio zuzenari ekin dio. Seguradoren hitzetan, ugazaben jarrera ez da txarra eta ulertzen du lurren jabeak izanda, etekin ekonomikoa atera nahi izatea. Aitzitik, lur horiekiko eskubideak galtzen ez dituztela azpimarratu du, desjabetzearekin ez bezala: “Udalak lurra hartzen du eta bere izenean jarri, baina aprobetxamendu-eskubideak jabearenak izaten jarraitzen dute”.

Begi onez hartu du alkateak egoera: “Gure aurreikuspena, sei hilabeteren buruan, lurren esleipena Hezkuntza Departamentuari egitea da”.

## PLANES URBANÍSTICOS, INFORMES Y BUROCRACIA

*Cualquiera que haya visitado el edificio de Azkorte en los últimos 20 años piensa lo mismo al ver las grietas de las paredes. Mikel Pagola, exalcalde de Urnieta, ha explicado que la situación del edificio es “muy limitada” y que no sólo lo dice él: “También lo ven los responsables del Departamento de Educación”, ha añadido.*

*Así las cosas, a la escuela le resulta difícil entender cómo se podría prolongar tanto el proceso de construcción de un edificio nuevo. Un edificio que no sólo es una necesidad identificada por la comunidad educativa, sino también por los responsables políticos.*

*El pulmón de la educación pública del pueblo, el viejo edificio de Secundaria, se está cayendo a pedazos. Mientras tanto, el nuevo edificio se ha perdido en una amalgama de Planes Urbanísticos e Informes Medioambientales.*

*La falta de suelo de su propiedad ha obligado al Ayuntamiento de Urnieta a construir el nuevo edificio de Secundaria dentro del Plan General de Ordenación Urbana. “El Plan General fue aprobado provisionalmente en 2007 y su aprobación definitiva se produjo siete años después, en 2014. Hasta el 2020, sin embargo, no llegó el visto bueno definitivo del Plan Parcial del ámbito correspondiente al nuevo edificio escolar”, ha explicado el alcalde, Jorge Segurado.*


**“NUESTRA PREVISIÓN ES QUE  
EN SEIS MESES LA ADJUDICACIÓN  
DE LOS TERRENOS SE HAGA AL  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN”**

**JORGE SEGURADO, ALCALDE**

*Con la aprobación de todos estos planes, el Ayuntamiento procede ahora a la ocupación directa del solar. Según Segurado, la actitud de los propietarios no es mala y entiende que quieran sacar un beneficio económico. Por otro lado, ha subrayado que con esta fórmula los dueños de las tierras no pierden sus derechos sobre estos terrenos, a diferencia de la expropiación: “El Ayuntamiento toma la tierra y la pone a su nombre, pero los derechos de aprovechamiento siguen siendo del propietario”.*

*El alcalde ha valorado la situación positivamente: “Nuestra previsión es que en seis meses la adjudicación de los terrenos se haga al Departamento de Educación”.*





## ‘¿RENDIRSE? JAMÁS’

Desde Egape Ikastola lo tienen claro: una escuela fuerte del siglo XXI necesita un caparazón renovado y adecuado para avanzar. Sin embargo, en ocasiones, el camino ha sido más difícil de lo previsto. Ante la evidencia de que el proceso de construcción del nuevo edificio iba a ser largo —no tanto como lo que está siendo en realidad—, se procedió hace unos años a la rehabilitación de algunas de las infraestructuras de la escuela para poder seguir allí en las mejores condiciones posibles. En este sentido, Marías ha explicado que el Ayuntamiento les ha prestado su colaboración en varias ocasiones: asfaltado de patios, pintura e iluminación, acondicionamiento del gimnasio, etc.

Sobre el futuro edificio, Marías ha considerado que el Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo para hacer realidad el objetivo, pero ha considerado que los pasos han sido “demasiado lentos”: “Con la necesidad que hay, es incomprensible que esto siga estando así”. Marías dice que para que cualquier proyecto sea exitoso es necesario poner plazos en el tiempo. A su juicio, el Ayuntamiento no ha sabido prever los riesgos que se pueden generar en el recorrido ni ha acertado con la forma de responder rápidamente a los mismos, es decir, se ha actuado con “excesiva confianza, demasiado optimista”. Vista la situación actual, Marías ha concluido: “Lamentablemente, no se ha acertado en la gestión del tema”.

En cualquier caso, Amutxastegi ha señalado que la precaria situación del edificio no ha sido un obstáculo para que

## ‘AMORE EMAN? INOIZ EZ’

Egape Ikastolatik argi dute: aurrera egiteko oskol berritua eta egokia behar du XXI. mendeko eskola sendo batek. Dena den, batzuetan, aurreikusitako baino maldatsua izan da bidea. Antzemanda eraikin berria gauzatzeko prozesua luze joango zela —ez, hala ere, errealitatean doan bezain luze—, eskolaren azpiegiturak zaharberritzeari ekin zioten orain urte batzuk, bertan igaro beharreko denbora ahalik eta baldintza onenetan izan zedin. Bide horretan, Mariasen hitzetan, Udalak beren laguntza luzatu izan die behin baino gehiagotan: patioen asfaltaketan, margoketa eta argiketean, gimnasioaren egokitzapenean eta abarretan.

Ildo beretik, etorkizuneko eraikinari dagokionez, Udalak helburua egi bihurtzeko ahalegina egin duela dio Marías, baina, urratsak urrats, horiek “polikiegi” eman direla uste du: “Beharra dagoelako iritziarekin guztiok bat etorrita, ulertezina da oraindik horrela egotea egoera”. Edozein proiektu arrakastatsu izateko, denboran epeak jartzea ezinbestekoa dela dio Mariasek. Haren aburuz, Udalak ibilbidean sor litezkeen arriskuak ez ditu aurreikusten jakin, ezta horiek azkar erantzuteko moduarekin asmatu ere, alegia, “gehiegizko konfiantzaz” jokatu dutela azaldu du, “baikorregi”. Egungo emaitza oinarri hartuz gero, “zorixarrez, gaiaren kudeaketan ez da asmatu”.

Nolanahi ere, Amutxastegiren esanetan, eraikinaren egoera eskasa ez da oztopo izan, Egape proiektu sendoa eta berritzailea bihurtzeko ahaleginari dagokionez. Talde-lanarekin eta ausardiarekin gogoratzen da egungo zuzendaria



eskola-komunitatea aipatzean: “Hori guztia ez du baldintzatu azpiegiturak. Baina egia da instalazio egokiek hamaika kontu erraztuko lizkiguketela. Dena den, eskola publikoaren abangoardian dago Egape”. Harekin bat dator Marias ere: “Irakasleen talde ekimentsu eta ahalegintsu horren lanak ekarri du gaur egun ikastetxeak daukan proiektu pedagogiko sendoa, ikasleei balore jakin batzuen gainean hezteko abagunea”.



Era berean, ikuspuntu akademiko batetik egin du aferaren gaineko balantzea zuzendari ohiak: “Zentzu horretan, udal gobernuak suspendituko nituzke. Hobe esanda, haiek beren burua suspenditu dutelakoan nago”. Aitortu du, ostera, gustatuko litzaiokela bikaineko nota ipintzea haien jardunari, baina ezin duela hori egin: “Ahalegindu direla? Bai. Baina egoerak bere horretan duen konplexutasunaz jabetuta, egin beharreko ahalegin guztiak egin dituztela? Ez naiz gai hori erantzuteko”. Ondorioz, autokritika egitea garrantzitsutzat jo du Mariasek: “Osasungarria da zertan asmatu den eta zertan egin den kale jakiteko”.

Amaia Amutxastegik eta Jorge Seguradok eraikinaren lehen harria jartzea desio du urte luzez eskolaren gidari izan denak; alabaina, errealitateari errepatatuta, epe laburrean hori gauzatzea zaila delakoan dago: “Beraz, nire gutxieneko desioa nahikotzat jo beharko dut, hots, Udalak orubea Hezkuntza Sailaren esku ipintzea”.

Bestalde, nahiz eta hiru hamarkadatik gora eman lanean Egapen, Amaia Amutxastegiren konbikzioek lehen egunean bezain sendoak izaten jarraitzen dute; ez da etsituko, ez hezkuntza-proiektuaren defentsan, ez eta eraikin berriaren aldeko borrokan ere: “Geure-geurea da. Guk beti sinetsi izan dugu Egape proiektuan, eta eraikin berria beronen zati bat da. Amore eman? Inoiz ez”.

*Egape se convierte en un proyecto sólido e innovador. La actual directora se acuerda del trabajo en equipo y de la valentía al referirse a la comunidad escolar: “Todo esto no lo ha condicionado la infraestructura. Pero es cierto que las instalaciones adecuadas nos facilitarían muchas cosas. No obstante, Egape está en la vanguardia de la escuela pública”. Marías coincide con ella en que “el trabajo de este equipo de profesores y profesoras, proactivo y potente, ha propiciado el sólido proyecto pedagógico que hoy tiene el centro, la oportunidad de educar al alumnado sobre determinados valores”.*

*Asimismo, el exdirector ha hecho un balance del asunto desde un punto de vista académico: “Suspendería los gobiernos municipales. Mejor dicho, creo que ellos se han autosuspendido”. Sin embargo, reconoce que le gustaría poner una nota excelente a su actuación, pero que no puede hacerlo: “¿Lo han intentado? Sí. Pero conscientes de la complejidad de la situación, ¿han hecho todos los esfuerzos necesarios? No soy capaz de responder”. Por ello, ha considerado importante hacer autocrítica: “Es saludable para saber en qué se ha acertado y en qué se ha fallado”.*

*El encargado de dirigir el colegio durante todos estos años desea que Amaia Amutxastegi y Jorge Segurado sean los responsables de poner la primera piedra del nuevo edificio. Pero vista la situación, ve difícil que eso suceda en un plazo corto, es por eso que dice: “Doy por suficiente mi mínimo deseo: que el Ayuntamiento ceda el solar al Departamento de Educación”.*

*Por otro lado, a pesar de llevar más de tres décadas trabajando en Egape, las convicciones de Amaia Amutxastegi siguen siendo tan contundentes como el primer día, no cesará ni en la defensa del proyecto educativo ni en la lucha por el nuevo edificio: “Es nuestro. Nosotros y nosotras siempre hemos creído en el proyecto de Egape, y el nuevo edificio es parte del mismo. ¿Rendirse? Jamás”.*

